





"Euskadik asko eman dezake eta harro eta pozik gaude bere sarrerarekin", nabarmentzen du CIJB-ek

CIJB-eko Batzorde Exekutiboaren ostean, partaideek prentsaurrekoa eman zuten eta Daniel Sanjuán presidenteak "Euskadik asko eman dezakeela" nabarmendu du. Era berean, Euskal Herria eta Valentzia "anaiak gara eta harro eta pozik gaude bere sarrerarekin".

Bestalde, 1928an Bruselasen sortutako Confederazioak gaur 20 herrialde dituela azaldu zuen, besteak beste, Belgika, Italia, Holanda, Euskadi, Valentzia, Portugal, Kosta Rica, India, Ekuador, Argentina edota Kolombia, eta "gure lehiaketa guztietan, one-wall modalitatean, emakumeek parte hartzen dutela" gogoratu zuen. Horretaz gain, "herrialde bakoitzeko kultura hartzen da kontuan eta gure goiburua 'Aniztasunean batu' da".

Patxi Jauregik "gure prioritatea gure selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzea, sustatzea eta bultzatzea" izan dela gogoratu zuen eta "CIJB-ek gurekin izan duen sentsibilitatea goraipatu nahi dut. Bere kide guztiek aho-batez babestu gaituzte eta horregatik harro gaude".

Ildo horrekin jarraituz, ilusio handiz agertu zen hurrengo hitzorduei begira. Lehenengoa irailean izango da Donostian. Orduan hiriak lehen eskutik bizi ahal izango du Llargues modalitatea. Hori 72 metroko esparru barruan jokatzen da eta "hiriko kale bat egokitu daiteke txapelketa hartzeko, horrela, publikoak ez du inora joan beharrik izango, gu joango gara haiengana eta haiek era zuzen batean eta hobeto ezagutuko dute modalitatea".







La CIJB subraya que "Euskadi puede aportar mucho y estamos orgullosos y contentos con su entrada"

Tras la Comisión Ejecutiva de la CIJB, los asistentes comparecieron en rueda de prensa y su presidente Daniel Sanjuán destacó que "Euskadi puede aportar mucho a la Confederación" y ha subrayado que el pueblo vasco y el valenciano "estamos hermanados y estamos orgullosos y contentos con su entrada".

Asimismo, explicó que actualmente hay 20 países dentro de esta Confederación, que empezó a funcionar en 1928 en Bruselas. Entre sus miembros se encuentran Bélgica, Italia, Holanda, Euskadi, Valencia, Portugal, Costa Rica, India, Ecuador, Argentina o Colombia y recordó que "en todos nuestras competiciones también toman parte las mujeres, dentro de la modalidad de one wall". Además, siempre se tiene en cuenta "la cultura de cada país al que vamos y nuestro lema es 'Unir en la diversidad'".

Patxi Jauregi, por su parte, recalcó que "nuestra prioridad siempre ha sido reivindicar, promover y potenciar la oficialidad de nuestra selección y quiero destacar la sensibilidad que ha tenido la CIJB con nosotros. Sus miembros nos han apoyado de manera unánime y nos sentimos orgullosos por ello".

A su vez, se mostró ilusionado por las próximas citas, la primera de las cuales tendrá lugar en septiembre en Donostia, que podrá vivir de primera mano las Llargues, que se disputan en un recinto de 72 metros de largo, "el cual se puede habilitar en una avenida de la ciudad, de modo que en vez de hacer que el público venga a verlo, somos nosotros los que nos acercaremos donde está el público y así se podrá dar a conocer de una manera más directa y mejor".





